



**ARAMAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## **ARAMAKO UDALEKO UDAL INSTALAZIOEN GARBIKETARAKO LEHIAKETA**

### **BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

### **KLAUSULAK**

#### 1.a. ERREGIMEN JURIDIKOA.

1.-Kontratu hau zerbitzuak emateko da, SektorePublikoaren Kontratuen Legeak, 2011ko azaroak 14ko 3/2011 Legean, 10. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Administrazio-kontratua izango da, eta herri administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunak arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunak arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

1.-Baldintza ekonomiko-administratiboaren plegu hau.

2.-Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean egongo diren tokiaraubideko nahiz herri-administrazioen kontratuetako legeko eta arauko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, ondorengo arauak aplikatuko dira: SektorePublikoaren Kontratuen Legeak, 2011ko azaroak 14ko 3/2011 Legea, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bateratua onesten duena; eta ondoko hau izango da arauko xedapena: 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

3.-Administrazio-zuzenbideko gainontzeko arauak.

2.-Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek ezin direnean argitu aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, administrazioaren eskumenak kontuan hartu beharko dira.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

3.-Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainontzeko aukerako baldintzen gaineratik egongo dira.

### **2.a. KONTRATUAREN XEDEA.**

1.-Kontratu honen helburu nagusia da ARAMAKo Udaleko instalazio hauek garbitzeko zerbitzua ematea: Udaletxe berria (Haur txokoa, kultur gunea, udaletxea, gimnasioa eta liburutegia), Loitza Pilotalekuko komunak, Udaletxe zaharrea (Jubilatuen lokala) Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako baldintza teknikoaren arabera.

2.-Kontratuaren xedeak lote bakarra du.

3.-Ez dira onartuko eskaintza alternatiboko proposamenik.

4.- Kontratu hau prozedura ireki bidez tramitatuko da.

### **3.a. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA.**

Plegu honetan aipatzen diren lanak gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, esleipena burutzen denetik kontatuta, edo bestela, kontratistari lanak hasteko baimenaren jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera.

Kontratu hau urtebeteko epealdi berrietara luzagarria izango da baina gehienez 4 urtekoa izango da.

### **4.a. AURREKONTUA-LIZITAZIO-MOTA.**

Kontratuaren aurrekontua 7800 eurokoa da (BEZ barne). Kopuru hori lizitatuzaileek behera hobetu ahal izango dute, kopuru zehatza kontsignatuz.

Lizitatuzaileek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergen kuotak ere sartuta daudela ulertuko da beti. Hala ere, eskeintzek zehaztu egin beharko dute era banakatuan kontratu honi dagokion Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren tipoa eta diru-kopurua, berau arautzen duen arautegiaren arabera .

Kontratua luzatuz gero aurreko urtean Gipuzkoan K.P.I.ak egin duenaren baitan eguneratuko da prezioa.

### **5.a. FINANTZAKETA:**

Plegu honetan aipatzen den kontratu-gauzatzea administrazioaren izapidetza egiten den hurrengo ekitaldian bertan hasiko da. Espedientea bideratzen duen arloak eskatuta, kontratua gauzatu behar den ekitaldiko aurrekontuan egokia eta nahikoa den kreditua esleitzearen baldintza pean geratzen da kontratu honen esleipenaren balioa.

### **6.a. ORDAINTZEKO MODUA.**



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratuaren prezioa hileru ordainduko da, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu ondoren eta udal teknikari eskudunak zerbitzua burutu delako oniritzia eman eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak bete ondoren.

Horretarako, honako hau aurkeztu beharko du enpresak:

- a) Behar bezala banakatutako faktura, fakturazten dituen zerbitzuak aipatuz eta bez banakatua ezarriz.

Lanean diharduen langilegoaren TC 2<sup>a</sup>

### 7.a. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.

1.-Prezioa kobratzeko eskubidea, seigarren klausularen arabera izango da.

2.-Kontratatik honako betebeharrak berezi hauek ditu, Plegu honetan jasotako eta arau osagarriak aplikatzeak ezarritako betebeharrak gain:

- a) Lanak kontratuan zehaztutako denboran eta lekuetan egingo ditu, preskripzio teknikoaren eta administrazio-klausulen arabera, eta haien interpretaziorako administrazioak kontratistari emandako jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresurik gabe.
- b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.
- c) Esleipen-jardueran zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.
- d) Kontratuaren iraupen osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatu beharko du. Hamabost eguneko epean emango du etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri.
- e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu; honakoak besteak beste: Aldizkari Ofizialetan eta prentsan azaldutako iragarkiak, fidantzen eraketa, eta, hala behar badu, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzea.
- f) Lan Legeria, Gizarte Segurantza eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legean (Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienean), eta zerga-erregimenaren xedapenak ere bai. Horrenbestez, udalkorporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako ardurarik izango xedapen horiek ez betetzetik etor litezkeen erantzukizunetan.
- g) Egiten dituen lanen eta emaniko prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna izango du, eta baita kontratuaren exekuzioan hutsegiteak eta okerrak gertatzeagatik, metodo ez egokiak erabiltzeagatik edo behar bezala ez jarduteagatik administrazioak edo hirugarren pertsonak izan ditzaketan ondorioen erantzukizuna ere.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

- h) Lanak egiterakoan nahiz bere obligazioak betetzerakoan Udalari eta hirugarren pertsoneri eragiten dizkien kalte guztiak indemnitzatzea.
- i) Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedatzen dena errespetatzea, kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz esleipendunak udalaren titularitateko fitxategietan dauden kutsu pertsonaleko datuak lortu beharra izango balu.

Era berean, kontratuaren esleipendunak bermatu beharko du, datuen tratamendua udaleko bulegoetatik kanpo egiten bada, izaera pertsonaleko datuen tratamendu hori egitea fitxategiaren arduradunak espresuki baimendutakoa izango dela, eta kasu orotan, fitxategi motari dagokion segurtasun maila bermatua izango dela, hori guztia, abenduaren 21ko 1720/2007 Errege Dekretuko 86. artikuluan esaten dena kontuan hartuta, zeinaren bitartez onesten baita LOPD garatzen duen Arautegia. Klausula honetan xedatzen dena ez da eragozpen izango, egokitzat jotzen den kasuetan, Hitzarmen bat sinatzeko esleipendunaren eta Udalaren artean, lehenengoak beharrezko datuen tratamendua egin behar duenerako formula zehatza erregulatzeko helburuarekin.

- j) Enpresako ordezkari bat izendatu beharko du gestio-mota orotarako, eta hark dagokion telefono mugikorra eduki beharko du Udaleko ordezkariekin harremanetan egoteko.

### **8.a. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.**

1.-Kontratuaren ikuskapena Udalak egingo du bere langile teknikoen bidez. Udalak lana modu eraginkorrean betetzeko behar diren jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta, eta Presidenteak dituen goragoko mailako zuzendaritza-eta ikuskaritza ahalmenen kalterik gabe.

2.-Administrazioa behartuta dago ezarritako kopuruak ordaintzera seigarren klausulan xedaturikoaren arabera.

### **9.a. BERMEAK.**

1.- Lizitazioan parte hartzeko behin behineko bermerik jarri beharrik ez du izango.

2.-Kontratu honen lizitazioan abantaila ekonomiko handieneko eskaintza aurkeztzen duen lizitatuak behin betiko bermea jarri beharko du Udaleko Kutxan, Kontratuaren Aurrekontuaren %5, BEZ kenduta

Berme hori aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, horretarako errekerimendua egiten zaion egunetik aurrera kontatuta.

Esleipendunak jarritako bermearen itzulketa premiatu dezake kontratuaren gauzatzea amaitutakoan eta, bere kasuan, bermearen epea bukatu denean.



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

3.-Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 84. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio-aseguruz) eta indarrean dagoen legeriak onartutako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

### 10.a. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA.

Kontratazio honen iragarkia Eusko Jaurlaritzako kontratazio profilean argitaratuko da.

Internet bidez ere egingo da publizitatea, ARAMAKO Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuz ([www.Arama.eus](http://www.Arama.eus)).

### 11.a. PARTE HARTZEKO AHALMENA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

1.-Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona natural edo juridiko guztiek, baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatze debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Lizitatuzaileek, gainera, beren kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatu beharko dute, Plegu honetako 11.4 atalean adierazten den moduan.

2.-Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesa dutenean, aldi baterako enpresa elkarteak sortu ahal izango dute. Esleipena beren alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak solidarioki erantzungo dute Administrazioaren aurrean eta elkarrearen ordezkari edo apoderatu bakarri izendatu beharko dute. Kontratutik etorritako eskubideak erabiltzeko eta obligazioak betetzeko beharrezko ahalmenak izango ditu ordezkari horrek kontratua bukatu arte.

3.-Lizitatuzaileek honako baldintzetan aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

- Epea: 15 egun, lizitazio honen iragarkia kontratazio profilean argitaratzen denetik kontatuta
- Bi era hauetako batean:
- a) Leihatilan, Udaleko bulegoetan (Iriarte 2 -20248 Arama), lanegunetan, larunbatetan izan ezik, eta bulego horiek irekita dauden ordutegian.

b) Posta ziurtatuaren bidez, honako helbide honetara zuzendua: "ARAMAKO UDALA, Iriarte 2, 20248 ARAMA. Erreferentzia: (Kontratuaren xedea zehaztu)", bidaltzaileak eskaintza hori Posta bulegoan jarri duen eguna justifikatu behar du, eta fax bidez (943161045) edo posta elektronikoaren ([udala@arama.eus](mailto:udala@arama.eus)) bidez eskaintza bidali duela jakinarazi behar dio kontratazio-organoari egun berean. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, zehaztutako egun horren ondoren lau egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko. Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatu ahal izateko, Baldintza Pleguak interesatuen eskura egongo dira honetan: [www.arama.eus](http://www.arama.eus). Era berean, espediente administratiboa Udaleko udal bulegoetan



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

aztertu ahal izango da, bulego-orduetan, deialdia argitaratzen den egunetik hasi eta eskeintzak aurkezteko epea bukatzen den arte.

4.-Lizitatzailleek HIRU GUTUN-AZAL ITXITAN aurkeztuko dituzte beren proposamenak, honako izen honekin: “ARAMAKO UDALAREN MENPEKO INSTALAZIOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratazioan parte hartzeko proposamena”. Gutun-azal horiek eskari orokorrarekin batera sartuko dira Sarrera erregistroan, eta lakratuta edota prezintatuta egon daitezke.

### **LEHENENGO GUTUN-AZALAK**

“DOKUMENTAZIOA” azpitulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- 1.-Nahiz bere izenean nahiz beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean proposamena auzetzen duen pertsonaren NA.
- 2.-Erantzukizun-aitorpena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 49. artikuluan zehaztutako kontratatze debekuetako kasuren baten barnean ez dagoela ziurtatzen duena (baldintza plegu honen I. Eranskinean jasota dago eredia)
- 3.-(Pertsona juridikoak direnean soilik) Osaera edo aldaketa eskritura, hala behar badu, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori eskatzen den



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza, jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta, hala behar izanez gero.

4.-Eskaintzaren sinatzailearen ordezkari-tza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsonek horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

5.-Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztapena, honela:

- Finantza-erakundeentxostenak edo, hala behar badu, arrisku profesionalei aurre egiteko kalteordainen aseguruua duela egiaztatzen duen agiria.

6.-Kaudimen teknikoaren duela honela egiaztatuta:

a. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu eta lan garrantzitsuenen zerrenda; horien zenbatekoa, datak, eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziz.

\* *Aurreko dokumentu horien guztien originalak, kopia kauto edo konpultsatuak edo fotokopia arruntak aurkeztu ahal izango dira. Dena den, azkeneko kasu horretan, abantaila handieneko eskaintza aurkeztu duen lizitatuak aipatutako dokumentazioaren originalak edo kopia kauto edo konpultsatuak aurkeztu beharko ditu kontratua esleitu aurretikan.*

\*\* *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten erregistroan inskribaturiko enpresek edo Estatuko Lizitatuak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturikoek 4 eta 5. puntuetan eskaturiko dokumentazioaren ordezkari-tza, Erregistroan inskribatuta dauden adierazpenak aurkeztu ahal izango dute. Udalak ofizioz eta ahal den neurrian egingo ditu egin beharrekoak, aipatutako ataletan eskatutako alderdi guztiak egiaztatzeko. Ezin izanez gero, aipatutako dokumentu horiek aurkezteko eskatuko du.*

\*\*\* *Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkeztu badira lizitazio honetara, enpresaburu horietako bakoitzak bere ahalmena egiaztatzea beharko du aurreko ataletan xedatutakoari jarraiki. Elkartearen Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, aski izango da proposamen-idatzian sinatzen duten enpresaburuaren izenak eta inguruabarrak adieraztea, bakoitzaren partaidetza zehaztea eta kontratua indarrean dagoen bitartean Udalaren aurrean guztien ordezkari-tza osoa izango duen pertsona izendatzea.*



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

*\*\*\*\* Atzerriko enpresek, Sektore Publikoaren Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legeko 44. eta 46. artikuluek eta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Araudi Nagusia onesten duen urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuko 9. eta 10. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

*\*\*\*\*\* Esleipendun izan ez diren lizitatzailleek 1. Gutanazal honetan aurkeztutako dokumentazioa itzultzeko eskatu ahal izango dute, kontratua esleitzen denean eta errekurtsioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez bada. Esleipendunak, era berean, dokumentazio hori itzultzeko eskatu ahal izango du kontratua egikaritutakoan eta behin betiko fidantza itzuli ondoren. Itzulpena eskatzen ez duten esleitzaileren plikak behin betiko esleipeneko erabakia hartu ondorengo hiru hilabeteko epean jasoko dira.*

**BIGARREN KARTAZALAK “ESKAINZA TEKNIKOA” azpigitulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:**

- 1.-Erabiliko diren garbiketako materialen zerrenda, marka eta zehaztapen teknikoak adieraziz.
- 2.- Bere kasuan zerbitzuan erabiliko diren ibilgailuak, marka eta matrikula adieraziz. Horiek zentro bakoitzera garraiatuko dituzte materialak eta makineria.
- 3.-Erabiliko den makineriaren zerrenda, marka eta zehaztapen teknikoak adieraziz.
- 4.- Txosten Teknikoa, lanak nola gauzatu diren azalduko duena eta bereziki:
  - Lokal bakoitzeko garbiketa orokorrerako proposamena Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako mugen barruan.
  - Enpresaren aurreikuspenak, erabili beharreko langile kopuruaren inguruan, joan-etorriei buruzkoak (horiek, nolahi ere, ez dira sartuko kontratatutako ordutegian), langileen kudeaketari buruzkoak.
  - Hobetze-proposamenak, kontratuaren xedeko lanei dagokienez, betiere kostu gehigarririk gabe.

**HIRUGARREN GUTUN-AZALAK “ESKAINZA EKONOMIKOA” azpigitulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:**

- 1.- Plegu honen amaieran jasotako Proposamen Eredua (Baldintza Plegu honen II. Eranskina), behar bezala betea.

Bigarren eta hirugarren gutun-azaletan sartzeko dokumentazioari buruzko oharrik:

*\*Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomikorik .*





## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

*\*\* Dokumentu horiek lizitatzailerak sinatuko ditu derrigorrez. Horrenbestez, baldintza hori betetzen ez bada, Kontratazio Mahaiak automatikoki kanpoan utziko du eskaintza, irekitzeko unean bertan dagoelako proposamen egileak sinatzen duenean izan ezik.*

*\*\*\*Prezioen eskaintzaren banakapenean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak, prezio osoaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak baliozkotzat emanez konponduko dira, eta ofizioz egingo dira oinarritzko prezioa eta BEZ zenbatekoa banakatzeko kalkuluak*

### 12.a. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

1.-Honako hauek izango dira Kontratazio-mahaia osatuko dutenak:

- **Presidentea:**  
ARAMAKo Udaleko Alkatea edo hark eskuordetutako udal zinegotzia.
- **Mahaikideak:**  
3 zinegotzi.  
Instalazioetako eta Mantentze-lanetako burua.
- **Idazkaria:**  
Gorporazioarena edo hark eskuordetutako Udaleko funtzionarioa.

2.-Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Lizitatzailerak dokumentazioaren gutun-azalean sartuko dituzte aurreko klausulan eskatzen diren dokumentu guztiak, eta ezin izango da onartu beste lizitazio batean parte hartzeko aurkeztutakoetara jotzea, nahiz eta dagozkion plikak irekitzeko ekitaldia aldi berean gertatu.

Mahaiak akats materialak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, egoki iritzi gero, gehienez ere hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, lizitatzailerak akatsa zuzen dezan. Horretarako eskaerak fax edo posta elektronikoen bidez egingo dira lehenetsuz, enpresak lehiaketan aurkeztu duen dokumentazioan aipatutako zenbaki edota helbidera zuzenduta.

3.-Kontratazio Mahaiak Udaleko bulegoetan irekiko ditu proposamenak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 4. egun balioduneko 13:00etan. Egun hori bulegoen egutegiaren arabera balioduna izango ez balitz, irekiera hurrengo egun baliodunean egingo litzateke.

Egintza horretan, onartutzat jotzen diren kontratu eskaintzen bigarren gutun-azala (eskaintza teknikoa) eta hirugarrena /eskaintza ekonomikoa) irekiko da jendaurrean.

Hasierako deialdi hau mantentzea nahiz gerta litezkeen aldaketak publizitatu egingo dira, kontratatzailearen profilaren bitartez, egokituz jotzen den beste edozein jakinarazpen-moduren kalterik gabe.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

4.-Azkenik, Mahaiak kontratazio-organoari igorriko dio egindako esleipen-proposamena.

5.-Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko eta eskaintzak baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eta juridikoak.

### **13.a. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.**

Esleipena ondorengo irizpideak kontuan hartuta erabakiko da:

1.-ESKAINZA EKONOMIKOA (60 punturaino).

2.-ZERBITZURAKO ERABILIKO DIREN BITARTEKO MATERIALAK. (10 punturaino).

Garbiketa-produktuak, ibilgailuak, makineriaren ezaugarriak.

3.-TXOSTEN TEKNIKOA (30 punturaino).

Kontuan hartuko da kontratuaren xedeko azterlanaren sakontasuna eta egokitzapena, honako hauek kontuan hartuta:

- Baldintza Teknikoak, Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako mugetan ordutegia egikaritzeko proposamenak, behar den langile-kopuruari buruz enpresak egindako aurreikuspenak, joan-etorriak (horiek kontratatutako ordutegitik kanpo egongo dira), zentro bakoitzaren garbiketa orokorrerako langileen gestioa (10 p.).
- Giza baliabideen kudeaketari eta langileentzako prestakuntza-planei dagokienez enpresak duen politika (5 p.).
- Prebentzio-planei eta lan-segurtasunari dagokienez enpresak duen politika (5 p.).
- Zerbitzua orokorrean hobetzeko proposamenak (5 p.).
- Erantzuteko gaitasuna, programatu gabeko ekitaldietarako zerbitzua azkar emate aldera (5 p.).

### **14.a. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA.**

1.-Administrazioak, aukeran, proposamenik onuragarrienari kontratua esleitzeko ahalmena izango du aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposamenaren balio ekonomikoari kasu egin beharrik gabe, edo, bestela, lizitazioa hutsik eman ahal izango du, betiere erabaki hori esleipen-irizpideei erreferentzia eginez arrazoituz.

2.-Esleipen-proposamena erabaki ondoren, Kontratazio Mahaiak errekerimendua egingo dio abantaila gehien dituen ekaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzailari, hamar egun baliodunekoa epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, dokumentazioa aurkez dezan Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzeke, aurretik hori egiaztatu gabe balego; eta beste edozein dokumentu, kontratazio organoak eskatuta, kontratatzeke gaitasuna duela egiaztatzeke edo kontratua egikaritzeko erabiltzera konprometitutako bitartekoak benetan eskura dauzkala egiaztatzeke.

Era berean, bidezkoa den behin betiko bermea eratu duela egiaztatu beharko du.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzailleak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabeko hurrengo lizitatzailari.

3.-Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

4.-Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, ARAMAKo Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

5.-Kontratuaren bi hilabeteko epe maximoan esleituko da, proposamenak irekitzen diren egunetik aurrera kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzailleak eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

### **15.a. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.**

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, hamabost egun baliodun baino geroago ez, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuta. Dokumentu hori titulu nahikoa da edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratugileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikora bihurtu dadin, eta horren gastuak bere kargura izango dira.

Kontratua formalizatzeko egintza Udalaren bulegoetan egingo da, Zerbitzuak hartarako errekerimendua eginda.

Formalizatzen denean osatuko da kontratua,

### **16.a.-KONTRATUA EGIKARITZEA.**

Era berean, kontratua egikaritzen hasi aurretik, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du kontratuaren xedeko jarduerarako arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela; hori guztia Lan Arriskuak Prebenitzeko Legeko 24. artikulua garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, arriskuen ebaluazioa eta larrialdi-plan baldintza plegu honetako III. Eranskinean jasota daude.

1.- Lanak ezin izango dira hasi, kontratugileak kontratua sinatzen duen arte.

2.-Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko ezarrita dagoen guztizko epearen barruan, baita, hala dagokionean, zehaztutako zatikako epeen barruan ere. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo Sektore Publikoaren Legearen 196. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

3.-Kontratatik kontratua bere "arrisku eta kontura" onartzen duela ulertuko da, testu bereko 199. artikulua arabera.

### 17.a: SUBROGAZIOA LAN-KONTRATUETAN.

Kontratu honen enpresa esleipendunak subrogatu egin beharko du aurreko enpresak zituen zenbait langileren lan eta administratibo-kontratuak.

Langile-zerrenda eta beren egungo kontratuetak baldintzak plegu honen III. Eranskinean jasotzen dira.

Obligazio hori ezartzeak ez dakar, inola ere, enpresa esleipendunak edo hark azpikontratutako enpresek kontratatutako langileek Udalarekiko lan-edo funtzionariotza-loturarik sortzea edo aitortzea.

### 18.a.-ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### 1.-Arau-haustekak.

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratatik kontratua gauzatzen duen bitartean egin ditzakeen arau-haustekak.

#### a) Oso arau-hauste larriak izango dira:

- Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzu hori emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.
- Kontraturiko zerbitzua, guztia edo neurri batean, beste bati eman, alokatu edo eskualdatzaea, aldezturik Udalaren baimen espresua izan gabe.
- Baldintza Plegu honetan zehaztutako edozein baldintza edo obligazio ez betetzea, gerora hortik etor daitezkeen ekintzen kalterik gabe.
- Lanak argi eta garbi gaizki edo modu irregularrean egitea.
- Prestazioaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuaren arduradunek emaniko aginduak ez betetzea, lanaren garapenari dagokionez, eta oro har, lan horien prestazioa erregulatzen duten arauak ez betetzea.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

#### b) Arau-hauste larriak izango dira:

- Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.
- Kontraturiko langileen eskura Udalak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak desegoki erabiltzea.
- Behin eta berriz akats larriak egitea.

#### c) Arau-hauste arinak izango dira aurretik aurreikusi ez diren haiek guztiak eta, nolabait ere, Baldintza Plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larriak eragiten ez badute.



## **ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

### 2. Zehapenak.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

- a) Oso arau-hauste larriengatik: 10.000 €ra bitarte
- b) Arau-hauste larriengatik: 5.000 €ra bitarte
- c) Arau-hauste arinengatik: 600 €ra bitarte

Hala eta guztiz ere, oso arau-hauste larriak direnean, Udalak erabakiko du zigorrak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea abiaraziko duen.

### 3.Eskumena

Zehapen hauek Udaleko Lehendakariak emandako Ebazpenaren arabera jarriko dira arau-hauste arinak eta larriak direnean, eta esleipen-organoak jarriko ditu, aldiz, oso arau-hauste larriak direnean, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren. Kasu horretan kontratistari audientzia emango zaio, eta hala badagokio, abal-emaileari.

### 4. Ordainketa.

Kontratistak Udalaren Diruzaintzan ordainduko du zehapenen zenbatekoa, banakako kitapenetik ateratako zorrak borondatezko denboraldian ordaintzeko epeen barnean. Epe hori igaro ondoren isunaren zenbatekoa ordaindu ez badu, kontratua egitean jarritako fidantzatik hartuko da kopuru hori, eta horrenbestez, kendutako kopuru hori berriz osatzeko hamar eguneko epea izango du kontratistak, horretarako eskaera egin zaion egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, ordaindu gabe dauden fakturretatik kendu ahal izango da.

### 5.-Kalteordainen erreklamazioa:

Zehapenak ezartzeak ez du Udalari sortutako kalteengatik ordaindu beharra kentzen. Kalte ordainen erreklamazioa era berean izapidetuko da.

### 19.a.-BERMEAREN EPEA:

Ez da ezarri berme-eperik Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako ondorioetarako.

### 20.a.-KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206. artikulua, oro har, kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak, eta baita zerbitzu kontratuetarako bereziki Lege horren beraren 284. artikuluan jasotakoak ere.

### 21.a.-PREZIOEN BERRIKUSPENA.



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratu hau ez dago prezioen berrikuspenera loturik.

### 22.a.-KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Behin kontratua osatu ondoren, aldagetak sartu ahal izango dira interes publikoko arrazioengatik eta ustekabeko kausei aurre egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, 2011ko azaroak 14ko 3/2011 Legeak 306 artikuluan ezarritako baldintzetan.

### 23.a.-ERREKURTSOEN ERREGIMENA.

1.-Kontratazio honi buruzko ebazpenei eta izapidetzeegintzei Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bitartez araututako administrazioarekiko birjarpen-errekurtsoa aplikatu ahal izango zaie, aukerako izaeraz, baldin eta azken horiek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute. Edo bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

2.-Interesatuak gainerako izapidetze-egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

### ***I. ERANSKINA: Ardurapeko adierazpen eredua***

“..... jaunak/andreak, NAN:  
....., hiria:....., helbidea:  
....., telefono zkia.....  
(fax zkia:.....; posta elektronikoa: .....), jarduteko gaitasun  
juridiko osoaren jabe dela, eta ezaguturik ARAMAKO UDALEKO UDAL  
INSTALAZIOEN GARBIKETARAKO LEHIAKETA ZERBITZUAREN kontratazioa  
arautuko duen Baldintza Plegua eta gainerako baldintzak, bere izenean (edo  
.....-@en izenean, IFK/NAN ....., hiria:  
....., helbidea:....., eta abar),  
BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.-Enpresa lizitatzailerak beharreko gaitasun juridikoa eta baliabideak badituela kontratuaren xedea betetzeko.

II.-Ez dagoela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 60. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoeretako bakar batean ere.

III.-Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko duela, horrela eskatzen bazaio.

IV.-Kontratazio-prozedura honi dagozkion jakinarazpenak egiteko, honako helbide elektronikoa adierazten da: .....



**ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

Lekua, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA ”



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

### II. ERANSKINA: Proposamen eredia

“..... jaunak/andreak, NAN:  
....., hiria:....., helbidea:  
....., telefono zkia.....  
(fax zkia:.....; posta elektronikoa: .....), jarduteko gaitasun  
juridiko osoaren jabe dela, eta ezaguturik ARAMAKO UDALEKO UDAL  
INSTALAZIOEN GARBIKETARAKO LEHIAKETA ZERBITZUAREN kontratazioa  
arautuko duen Baldintza Plegua eta gainerako baldintzak, bere izenean (edo  
.....-@en izenean, IFK/NAN .....), hiria:  
....., helbidea:....., abar),

#### JAKINARAZTEN DU:

I.-Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Plegua eta espedientean dauden gainerako dokumentuak ezagutzen dituela, eta osorik onartzen dituela.

II.-Esleipendun suertatuz gero, onartutako Baldintza Pleguan zehazten diren baldintzak beterko dituela beti, kontratuaren gai diren lanetan, eta espedientean zehaztutako gainerako eskakizun guztiak ere beteko dituela.

III.-Lan, zerga eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeak edo araudiek xedatzen dutena beteko duela.

IV.-Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela lan horiek .....euro urtean egiteko, honela banakatuta:

- Hilabeteko prezioa .....€
- BEZ aplikagarria (%.....): ..... €

Ez ohiko garbiketak egiteko orduko prezioa bez barne ..... €

Lekua, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA





**ARAMAKO UDALA**

(GIPUZKOA)

**III. ERANSKINA: ESLEIPENDUNAK SUBROGATU BEHARREKO  
LANGILEEN ZERRENDA**

Araman, 2018ko urtarrilaren 19ean

Alkatea,

Idazkaria,

DILIGENTZIA: Nik idazkariak jartzen dut plegu hau Aramako udalak urtarrilaren 24ean egin zuen udal osoko bilkuran onartu zela adierazteko.

Araman, 2018ko otsailaren 1ean.

Idazkaria,